



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 27a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00002. “Tuterako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00002. “Tuterako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

2024ko urtarrilaren 22an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Tuterako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea “Tuterako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	3
I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN	4
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. TUTERAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	6
1. GEHIGARRIA. TUTERAKO UDALA	7
1.1 Informazio orokorra	7
1.2 Egindako jarduerak	9
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	9
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	10
3.1 Langile-gastuak	10
3.2 Kontratazio publikoa	13
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak	16
3.4 Next Generation funtsak	19

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea beterik eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Tuterako Udalari langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen inguruko fiskalizazioa egin du.

Lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoretzako teknikariek eta informazio-sistemetako erdi mailako teknikariek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaion Tuterako Udaleko alkateari, alegazioak aurkez zitzaion. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Tuterako Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: kontratazioa munta txikiko araubidean eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoa dagokie txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure lanaren norainokoan ez dira sartzen udalaren erakunde autonomoa eta haren gainerako menpeko enteak.

III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Tuterako Udalaren 2022ko ekitaldiko langileari, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Tuterako Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertutak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kontratazio publikoaz bezainbatean, gastuen 3,66 milioitan hauteman ditugu okerrak; hau da, 2022ko gastuen ehuneko 23an, jarraian xeheki azaltzen denez:

- Udalak 1,26 milioiko gastua egin zuen sei kontratistarekin, gure txostenaren 3.2. Gehigarrian zehaztutako prestazioei dagozkienak, zeinak haien balio zenbatetsiaren arabera lizitatu beharko ziren.
- Bestalde, Udalak 2,40 milioi ordaindu zituen gure txostenaren 3.2. Gehigarrian zehaztuta datozen 11 prestaziorengatik, zeinen kontratua bere indarraldi amaierara iritsita baitzegoen alde zurretik.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko legezketasun-betetzeari egin diogun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako alderdiak salbu, erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. TUTERAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Tuterako Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpokorik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea Udalak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti detektatuko duenik ez-betetze aipagarri bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jardueraren araudi erregulatuarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionalerako jarrierari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze aipagarriak izateko arriskuak identifikatu eta baloratu ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzari oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko ez-betetzearen kasuan baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein oker adierazgarri. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.

VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloko betetze-maila fiskalizatzeko lanaren emaitzaren ondorioz, udal horren 2016ko kontuei buruz egin zuen azken txostenean bezala, Kontuen Ganberak hauxe gomendatzen du:

- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

- *Lizitatzea eta adjudikatzea urteko zenbatekoa edo, ondoz ondoko prestazioen kasuan, hainbat ekitalditan 15.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten prestazioak.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. Gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta jaulkitzen da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador


1. GEHIGARRIA. TUTERAKO UDALA

1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Tutera Nafarroako Foru Komunitateko hego-muturrean kokatuta dago, Erriberabarrena eskualdean. 215,70 km²-ko azalera du, eta 2022ko urtarrilaren 1ean 37.247 biztanle zituen, eta, horrenbestez, Foru Komunitateko bigarren udalerririk populatuena da.

Besteak beste, honako organo hauek osatzen dute udalaren antolamendua: Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza. Gainera, sei batzorde informatibo daude.

Hauxe da Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera:



Honako hauek osatzen dituzte sektore horiek:

- Administrazioaren Sektore Publikoa, Udalak berak eta bere erakunde autonomoak, Uren Udal Batzarra, osatua. 2022an, Udalak ez zion ekarpenik egin erakunde horri.
- Enpresen sektore publikoa: Udalak Tudela Cultura enpresa-entitate publikoaren jabetza osoa dauka, zeinak udalerriko kultura-beharrak garatu eta asetzen baititu. 2022an, Udalak 0,77 milioiko ekarpena egin zion entitate horri.
- Fundazioen sektore publikoa: bi fundaziok osatzen dute. 2022an, Udalak 150.000 euroko ekarpena egin zien fundazio horiei.

Udalak bere kontuetan sartzen ditu aipatutako erakunde autonomoa eta enpresa-entitatea. 2022ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren horien guztien funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

- Udala, erakunde autonomoa eta enpresa-entitate publikoa

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	48.073.491	42.718.366	318
Uren Udal Batzarra	4.441.942	3.925.323	26
Tudela Cultura enpresa-entitate publikoa	1.167.713	1.570.223	9
- Bateratzearen doitzeak	-770.718	-770.718	-
Bateratua, guztira	52.912.428	47.443.194	353

- Enpresa-entitate publikoa

	Ekitaldiko emaitza	Udal-dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Negozio-kopuru garbia	Plantilla batez bestekoa (2022)
Cultura EEPa	-369.814	770.718	-	927.214	230.798	9

- Fundazioak

Fundazioa	Ekitaldiko soberakina	Udal-dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Plantilla batez bestekoa (2022)
Dédalo Fundazioa	17.297	125.000	-	113.706	3,33
María Forcada fundazioa	-99.108	25.000	12.000	2.381.356	-

Udala honako hauetako kidea da:

- Erriberako Mankomunitatea, zeinak honako zerbitzu hauek ematen dituen: hondakinak biltzea, bideak garbitzea eta animalien zentroa.
- UHUNen Tuterako Ikastetxe Elkartuaren Partzuergoa.
- Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko Estrategietarako Partzuergoa.

2022ko ekitaldian, Udalak erakunde horiei egindako ekarpenak 178.266 euroko gastua ekarri zion, xehetasun hauekin bat:

	Aitortutako betebeharrak, 2022
Erriberako Mankomunitatea	62.759
Nafarroako Erribera garatzeko Estrategietarako Partzuergoa	81.648
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	33.859
Guztira	178.266

1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzuak eta haiek kudeatzeko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zeharkako kudeaketa: Zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea
	Udala	EEAA	Enpresa publikoa		
Argiteria publikoa				X	
Hilerria	X				
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					X
Bide-garbiketa					X
Uraren ziklo integrala		X			
Estolderia		X			
Parke publikoa	X				
Liburutegia-ludoteka	X				
Gizarte zerbitzuak	X				
Kirol instalazioak	X			X	
Bidaariantzako hiri barruko garraio kolektiboa				X	
Hirigintza	X				
Udaltzaingoa	X				
Ingurumena	X				
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X				
Ikastetxe publikoak mantentzea	X				
Merkatua	X				
Berdintasunaren sustapena	X				
Turismo-jardueraren sustapena	X				
Merkataritza ibiltaria	X				
0-3 urtekoen ikastetxeak	X				

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko pre-sako neurriei buruzkoa.

Foru araudia **eta** tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publiko-koen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

3.1 LANGILE-GASTUAK

Udalaren langile-gastuak 19,39 milioioak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 45. Honako hau da gastu horren xehetasuna:

Kontzeptua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Goi-karguak	195.498
Kabineteko behin-behineko langileak	462.972
Funtzionarioen ordainsariak	10.387.290
Lan-kontratudun langileen soldatak	1.892.166
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	6.454.039
Guztira	19.391.966

Plantilla organikoa

Udalaren 2022rako plantilla organikoa eta 2022ko abenduaren 31ko langileen zerrenda 2022ko maiatzean eta 2023ko martxoan onetsi eta argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Plantillako lanpostuak 333 ziren, xehetasun hauekin bat:

Sailkapena	2022
Funtzionarioak	279
Lan-kontratudunak	47
Behin-behineko langileak	7
Guztira	333

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 84 funtzionario-araubidekoak dira, eta ehuneko 14 lan-kontratudun araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako langileak	333
Beteta	181
Hutsik	152
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	46
Bete diren lanpostu hutsak	139
Bete diren lanpostu hutsak (%)	91
Bete gabeko lanpostu hutsak	13
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	9

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 46 hutsik zeuden; horietatik ehuneko 91 aldi baterako beteta zeuden, eta gainerakoak, ehuneko bederatzi, bete gabe. Guztira betetako lanpostuetatik aldi baterako beteta dauden ehuneko ateraaz gero, ratioa ehuneko 43ra igotzen da.

Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udala partzialki atxiki zitzaion horri. Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Udalak hasiera batean 74 lanpostuko egonkortzerako lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean LEP) onetsi zuen, maiatzaren 26an Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratua, legearekin bat etorrita, zeinak 2022ko ekainaren 1a ezartzen baitzuen epemugatzat. 2022ko azaroan Nafarroako Administrazio Auzitegiak gora jotzeko errekurso bat baietsi ondoren, beste bi lanpostu gehitu ziren, eta behin betiko LEPa 2022ko abenduaren 26ko NAOan argitaratu zen.

- 76 lanpostuetatik, 66 sartuta daude merezimendu-lehiaketaren hautaketa-sisteman, eta hamar, oposizio-lehiaketaren sisteman.

- Lagin batean egiaztatu dugu LEPean sartutako lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako betekizunak, kasu batean izan ezik, zeinetan lanpostua bete gabe egon baitzen 1.455 egun jarraian. Horri dagokionez, aipatutako 19/2022 Foru Legearen 4. artikulua ezartzen duenez “...*Ez da etenalditzat joko lanpostua bete gabe egon den aldia, baldin eta lanpostua berriz ere benetan bete bada eta aldi horietako bakoitzaren iraupena laurogeita hamar egunetik gorakoa ez bada*”; beraz, lanpostu hori ez zen LEPean sartu behar, bete gabe egoteari dagokionez araudiak ezarritako epea nabarmen gainditu zuelako.

Lanpostu hori, gaur egun, dagokion merezimendu-lehiaketaren aurretik egiten ari den lekualdatze-lehiaketan sartuta dago.

- Lanpostu horiek betetzeko deialdiak azaroaren 21ean eta 28an argitaratu ziren, eta 2022ko abenduaren 12an, legearekin bat, hark ezarritako epemuga 2022ko abenduaren 31 baitzen. Hiru merezimendu-lehiaketa eta bi oposizio-lehiaketa deitu ziren, aurretik aipatutako lanpostuetarako.

Zenbait errekurso jarri ziren deitutako deialdi horien aurka, eta bat baietsi zen. Horren ondorioz, deialdi horietako baten merezimenduak baloratzeko baremoa aldatu zen.

- Honako hau da deialdien egoera txosten hau idazteko garaian:

Egoera	Lanpostuen kopurua
Merezimendu-lehiaketa:	66
Epaimahaiaren eraketaren zain	29
Lehiaketa amaituta eta izendapenak NAOan argitaratuta	20
Lekualdatze-lehiaketa abian	17
Oposizio-lehiaketa:	10
2024an eginen da	6
Lekualdatze-lehiaketa oraindik deitu gabe	4

Udalak kalkulatu du zein izanen litzatekeen behin-behinekotasunaren ehunekoa baldin eta 2021eko eta 2022ko EEPetan onartutako lanpostu guztiak deitu eta beteko balira, baita erretiroak direla-eta egon daitezkeen bajak ordezkatzeko ohiz kanpo egiten diren EEPkoak ere. Kasurik onean, tasa hori ehuneko 4,19koa litzateke. Hala ere, egonkortze-prozesua 2024ko abenduaren 31n amaitu zenez, txosten hau idazteko garaian ezin da baloratu egiturazko lanpostuetan behin-behinekotasuna ehuneko zortzira murrizteko legez aurreikusitako helburua bete ote den.

Langileria gastuen egiaztapenak

Langileria gastuak fiskalizatzeko, nomina kudeatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoaren eta kontabilitateko aplikazio informatikoaren urriko datuak jaso genituen. Ez dago aplikazio horien arteko loturarik, eta horrek neurri handi batean zailtzen ditu aurrekontu-egozpenaren lana eta informazioaren kontabilitate-tratamendua; izan ere, langileek eskuz egiten dituzte zeregin horiek. Kontuen Ganberak Tuterako Udalaren 2016ko ekitaldiaz egindako txostenak jada aipatzen zuen kontu hori, eta Udalari oker hori konpontzeko gomendatu zion.

Bestalde, plantilla eta langileak kudeatzeko zereginetako batzuk, hala nola lanpostuak kodetzea edo antzinasunari buruzko datuak, eskuz egiten dira Excel orriekin; beraz, horiek berrikustea oso zaila da, eta horrek zaildu egiten du lanpostuen okupazioaren trazabilitatea, eta, gainera, akatsak egiteko arrisku handia dakar.

2022ko urrian 271 pertsonarentzat¹ 654.627 euroko zenbatekoarekin sortzapena izan zuen nominako ordain-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu. Zenbateko hori urriko nominaren guztizkoaren ehuneko 69 da.

Aurreko azterketan egiaztatu dugu nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoan aurreikusitakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola betetzen duen lanpostuaren arabera; dena den, honako alderdi hauek adierazi nahi ditugu:

- Graduari dagokionez, honako oker hauek hauteman ditugu: pertsona batek zegokiona baino gutxiago kobratu zuen, eta pertsona batek behar baino gehiago. Udalak dagoeneko hasi ditu dagozkion erregularizazio-espeditentak.

- Akatsak daude antzinasunaren betetze-datetan, kontzeptu hori (graduak, bosturtekoak eta hirurtekoak) kalkulatu den Excel orrietan. Horien ondorioz, bosturtekoek dagokionez, hiru pertsonak behar baino gehiago kobratu zuten, eta beste bik zegokiona baino gutxiago. Kasu guztietan, Udalak dagoeneko hasi ditu erregularizazio-espeditentak.

- Lanpostuaren osagarriari dagokionez, akats baten ondorioz, pertsona batek zegokiona baino gutxiago kobratu zuen.

- Musika-eskolako langileei ordainsariak ordaindu zaizkie “irakaskuntza-osagarria” dela-eta. Osagarri hori plantillan jasota egon arren, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ezarrita dago hain zuzen Foru Komunitateko Administraziooko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioentzat.

Egindako azterlana kontuan hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Egonkortze-prozesutik ezabatzea bertan sartzeko betekizunak betetzen ez dituen lanpostua.*
- *Langileria gastuak automatikoki kontabilizatzea ahalbidetzen duen tresna bat ezartzea, nomina-kontzeptuak kasuan kasuko aurrekontu-partidekin lotuz.*
- *Langileen antzinasunaren betetzearen kalkulua hobetzea eta horien ordainketa egiaztatze behar diren kontrolak garatzea.*
- *Plantilla kudeatzeko informazio-sistema batezartzea, nominari lotua lanpostuaren kodearen eta enpleguaren kodearen bidez, haren trazabilitatea errazte aldera.*
- *Langileei ordainsariak ordaintzean hautemandako okerren erregularizazioa amaitzea.*
- *“Irakaskuntza-osagarria” deritzona egokitzea Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean araututako osagarrietara.*

¹ Honako kontzeptu hauek aztertu ditugu: oinarrizko soldata, mailaren osagarria, gradua, antzinasuna, berriazko osagarria, lanpostuaren osagarria, lanaldiaren luzapenaren osagarria, eskusibotasun-osagarria, arrisku bereziaren osagarria, aldi baterako osagarri pertsonala, irakaskuntza-osagarria, kontserbatorioko erdi-mailako osagarria, bosturtekoa, hirurtekoa eta bateraezintasun-osagarria.

3.2 KONTRATAZIO PUBLIKOA

Udalaren 2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 15,75 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 37 egiten dute, xehetasun hauekin bat:

Artikulua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Errentamenduak eta kanonak	219.706
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	5.635.276
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	9.692.917
Beste kalte-ordain batzuk	203.613
Gastua, guztira	15.751.512

2022an inbertsioetan egindako gastuak 3,09 milioi izan ziren. Hona hemen haien xehapena artikuluka:

Artikulua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	2.200.794
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	44.806
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	226.256
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioak	114.363
Ezin ukituzko inbertsioetan egindako gastuak	6.713
Ondare-ondasunen inbertsioetan egindako gastuak	499.496
Guztira	3.092.428

Gure lana munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertea izan da, bi gastu-kapituluetan. Fiskalizazio-lagina hautatzeko, kontratista guztiak eta haien gastua kuantifikatu ditugu, hala 2. kapitulurako nola 6. kapitulurako, informazioa honako orrialde honetatik aterata:

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak, guztira	Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 71-80. artikuluen arabera izapidetutako gastuak		Faktura hutsaren arabera edo indarreko kontratuetarako gastuak		Aztertutako gastua bakarrik fakturaren arabera edo indarreko kontratuetarako gastuak			
	Kontratazio-kopurua	Zenbatekoaren ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontratazio-kopurua	Zenbatekoaren ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontratazio-kopurua	Zenbatekoaren ehunekoa guztizko gastuarekiko	Kontratazio-kopurua	Zenbatekoaren ehunekoa guztizko gastuarekiko
15.000 euro + BEZa baino gastu handiagoa duten kontratistak	83	13.690.729	38	4.986.303	45	8.704.427	48	8.694.755
Honako gastu hau duten kontratistak: 3.750 euro + BEZa eta 15.000 euro + BEZa bitarte	146	1.404.298	4	60.079	142	1.344.218	6	85.211
3.750 euro + BEZa baino gastu txikiagoa duten kontratistak	544	656.485	0	-	544	656.485	0	-
Kontratazio, guztira	773	15.751.512	42	5.046.382	731	10.705.130	54	8.779.966
40.000 euro + BEZa baino gastu handiagoa duten kontratistak	9	2.769.365	7	2.320.160	2	449.205	2	449.205
Honako gastu hau duten kontratistak: 15.000 euro + BEZa eta 40.000 euro + BEZa bitarte	6	162.661	1	25.000	5	137.661	5	137.661
15.000 euro + BEZa baino gastu txikiagoa duten kontratistak	37	160.403	0	-	37	160.403	0	-
Kontratazio, guztira	52	3.092.429	13	2.345.160	44	747.270	7	586.866

Lizitazio-prozedurarik edo indarreko kontratuetarako gastuak egin dituzten kontratista guztietatik, 2. kapituluaren kasuan hautatutako lagina gastuaren ehuneko 82 da; eta 6. kapituluari dagokionez, aztertutako lagina gastuaren ehuneko 79 da.

Berrikusi ondoren, honako hauek ondorioztatu ditugu:

Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetutako honako prestazio hauek daudela, guztira 1,26 milioiko gastua jo zutenak 2022an, zeinen balio zenbatetsia ekitaldi batean edo batzuetan gainditzen baititu Kontratuei buruzko Foru Legean araubide horretarako ezarritako mugak:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	ABG, 2022 (BEZa barne)
Energiaren eta gasaren hornidura	2.098	1.172.724
Telefonia eta Internet	18	27.715
Laguntza teknologikoko zerbitzuak	1	25.994
Argizatze-materiala alokatzea	1	18.150
Nominen inguruko kontabilitate-aplikazioa	12	11.138
Guztira		1.255.721

Aurreko datuez bezainbatean, aipatu nahi dugu energia- eta gas-hornidura bi kontratistak eman zituela; gainerako zerbitzu eta hornidurak kontratista bakar batek eman zituen.

Aztertutako gainerako laginari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Energia-horniduran 1,39 milioiko gastu gehigarria dago guztira, nekazarien ureztalurretarako behar den goi-tentsioari dagokiona. Udalak ordaintzen du zerbitzu hori, eta ondoren, behar duten nekazariak ordaintzen dute. Prestazio hori ere araudian ezarritako prozeduren arabera lizitatu behar zen, zenbatekoa kontuan hartuta; hala ere, udalaren berezko gastua ez denez, eta nekazariak lizitaziorik ez egiteko eskatu zutenez, ez dugu oker izapidetutako zenbateko gisa sartu.
- Diru-bilketa exekutiboaren zerbitzua –2022an 113.211 euroko gastua izan zuen– pertsona berberak ematen du 1985etik, kasuan kasuko hautapen-deialdia egin ondoren. Aipatutako pertsonarekin denboran zehar egindako kontratua jasota badago ere, Ganbera honek uste du ez dela prestazio hori lizitatzeko modurik egokiena.
- Bestalde, 2. kapituluan Tuterako gaita-jotzaileekin egindako gastu bat erregistratu da, guztira 23.650 eurokoa. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 7.k. artikulua arabera, era horretako gastuak kontratazio publikoari buruzko araudiaren aplikaziotik kanpo egon arren, ez dago jasota horri buruzko hitzarmenik formalizatu denik.

Ganbera honek adierazi nahi du 2022an Kontu-hartzaitzako Administrazioak zenbait eragozpen jarri zituela kontratazioarekin lotutako kontuengatik; aztertutako laginean eragozpen bat jarri zen argiztapen-materialaren alokairua dela-eta.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Kasu honetan, ikusi dugu azterturiko gastua egokiro izapidetua izan zela munta txikiko kontratazio araubide bereziaren bidez.

- Kontratazioak argitaratzea

Udalak ez du argitaratzen adjudikatu diren munta txikiko kontratuen hiruhileroko informazioa, adjudikaziodunaren eta zenbatekoaren identifikazioarekin. Halaber, ez ditu adjudikazio guztiak Kontratazioaren Atarian argitaratzen araudian ezarritako epeetan.

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak 2,40 milioi ordaindu zituen kontratua epemugaratua zeukaten 11 prestaziorengatik, honako xehetasun hauekin:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2022/12/31ra arte metatutako gastua	Kontratuaren amaiera-data (luzapenak barne)
Eraikinak garbitzea	1.354.386	2.379.833	2021/02/28
Hiri-garraioa	409.689	3.284.799	2014/12/31
Egonaldi mugatuko aparkatzea	267.388	1.426.833	2017/07/31
Ahots- eta datu-komunikazioko azpiegituren mantentze-lanak	109.188	462.501	2018/09/30
Tuterako Udal Eremuko eta Ribotas Kirolgunearen instalazioetako zerbitzuak	76.014	167.347	2020/12/31
Argiteria publikoaren kontserbazioa eta mantentzea	67.315	1.666.090	2015/07/17
Ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua	43.560	94.380	2022/08/31
Aire girotuaren eta berogailuen mantentze-lanak	27.275	27.275	2022/06/15
Segurtasun-elementuen mantentze-lanak	20.115	80.922	2019/06/30
Arratoi-hiltzea eta intsektu-hiltzea	14.117	14.117	2022/05/31
Legionelaren prebentzioa eta kontrola	8.397	8.397	2021/07/15
Guztira	2.397.444	9.612.494	

Udalaren arabera, kontratua amaitu zenetik prestazio horiek lizitatu ez izanaren arrazoi nagusia da horiek izapidetzeko baliabiderik eza. Txosten hau idazteko garaian, argiteria publikoaren kontserbazioa eta mantentzea 2022ko ekainean lizitatu eta adjudikatu zen; kirol-instalazioetan zerbitzuak ematea 2022ko abuztuan, eta hiri-garraioa 2023ko apirilean.

Gure ondorioak aintzat hartuta, VIII. epigrafean jada formulatutako gomendioez gain, hauxe gomendatzen dugu:

- *Adjudikazioak Kontratazioaren Atarian argitaratzea, araudian ezarritako epeetan.*
- *Munta txikiko araubide bereziaren bidez izapidetutako kontratuen hiru hilean behingo zerrenda argitaratzea, araudian ezarritakoaren arabera.*
- *Nahitaezko diru-bilketako zerbitzua lizitatzea eta adjudikatzea, araudian ezarritako prozeduren arabera.*
- *Tuterako gaita-jotzaileekin hitzarmen bat formalizatzea, egiten duten jarduera arautzeko, eta gastu hori 4. kapituluan kontabilizatzea.*

3.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 2,66 milioi izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko sei egiten du, honako xehetasun hauekin bat:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Ente publikoei eta merkataritza-sozietateei	770.718	-
Toki entitateei	178.266	-
Enpresa pribatuei	127.924	22.212
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	1.472.909	84.384
Guztira	2.549.817	106.596

Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa eta zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak aztertu ditugu.

Dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalak dirulaguntzen plan estrategiko bat onetsi zuen 2020-2022 aldirako. Plan horren edukia aztertu dugu eta uste dugu arrazoizkoa dela eta araudian ezarritakora egokitzen dela.

Dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 540,472 euro eman zizkien zuzenean 32 onuraduni, bere menpeko enteak alde batera utzita, honako xehetasun hauekin bat:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa	85.179	81.648
Erriberako Mankomunitatea	70.600	62.759
Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala	63.220	-
Ilundain Haritz Berri fundazioa	40.000	40.000
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	35.000	33.859
Tuterako peñen federazioa	23.000	23.000
Erriberako erretiratuen elkarte	22.000	22.000
Erriberako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte	22.000	22.000
Desgaitasuna duten pertsonen aldeko Nafarroako elkarte	22.000	22.000
Osasun mentalerako Nafarroako elkarte	22.000	22.000
Adikzioen arretarako Tuterako eta Erriberako fundazioa	22.000	22.000
Espainiako Gurutze Gorria	22.000	22.000
Tuterako Erruki-Etxea	22.000	22.000
Nafarroako Elikagaien Bankua fundazioa	18.700	18.700
San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibila	18.700	18.700
Arreta-defizita duten pertsonen laguntzeko Nafarroako elkarte	18.700	18.700
Tudela comparte fundazioa	18.700	18.700
Caminos de Sefarad-Espainiako Judutegien Sarea	14.000	11.000
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	13.000	12.686
Tuterako pasio bizidunaren ermandadea	12.000	12.000
Miguel Eza jauna patronatua	11.000	11.000
Dekanoaren jauregi-museoa	10.750	0
Turismoa sustatzeko helmugan Espainiako elkarte	5.000	5.000
Aste Santuko kofradien elkarte	4.500	4.500
Tuterako dantza eta makil-dantzaren lagunen kultura-elkarte	4.000	4.000
Tuterako Olentzeroren lagunen elkarte	3.000	3.000
Alde Zaharreko makil-dantzaren lagunen elkarte	3.000	3.000
Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa	1.500	1.500
Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa	1.000	1.000
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	800	800
Benetako gurutzearen bidearen udalerrien Nafarroako elkarte	700	700
Hiri hezitzaileen nazioarteko elkarte	250	220
Guztira	630.299	540.472

Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
Ilundain Haritz Berri fundazioa	40.000
Tuterako peñen federazioa	23.000
Nafarroako Elikagaien Bankua Fundazioa	18.700
Tuterako dantza eta makil-dantzaren lagunen kultura-elkarte	4.000
Alde Zaharreko makil-dantzaren lagunen elkarte	3.000
Guztira	88.700

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ezen, orokorrean, gastuak baimenduta, kontu-hartzaileak ikusita eta justifikatuta daudela, eta horien onspena, justifikazioa eta ordainketa egin zela horiei buruzko araudiak ezarritakoari jarraituz. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udalak ez du diruz lagundutako jardueretako gastuak eta diru-sarrerak justifikatzeko eredu normalizatu bat.
- Dirulaguntzak ez dira Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzen.
- Peñen Federazioak ez zuen egiaztatu gutxienez hiru eskaintzaren eskaera, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako atalaseak gainditu zituzten gastuetarako.

Federazio horren gastu aipagarrienen justifikazioak barne hartzen ditu diruz lagundutako jardueraren antolaketari eta diruz ez lagundutako bati dagozkion fakturak, baina ez da zehazten gastuaren zer zati dagokion bakoitzari. Udalak onuradunari azalpenak eskatu dizkio, eta bi jardueren arteko banaketa egin da, jasotako zenbatekoa justifikatze aldera.

Bestalde, diruz lagundutako jarduera gauzatu zela egiaztatu badugu ere, federazio honek ez zuen egindako jardueraren oroitidazkirik aurkeztu, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenak ezarri zuten bezala. Oker hori ere badago Tuterako dantza eta makil-dantzaren Elkarteari emandako dirulaguntzan.

- Bi kasutan ez dago jasota onuradunarekin sinatutako hitzarmenaren egokitasunari buruzko aurretiko txostena, udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean ezarritakoaz bestera.
- Bi kasutan, kontu-hartzaileak eragozpen bat jarri zuen emandako dirulaguntza ez zegoelako sartuta Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.
- Bi kasutan, ez dago jasota onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten egiaztagiririk, ordenantzan ezarritakoaz bestera.
- Ilundain Fundazioarekin ezarritako hitzarmenean, ez dago jasota behar bezala banakatu denik zer gastu-kontzeptu finantzatuko diren eta horiek nola justifikatu behar diren.
- Elikagai Bankuari emandako dirulaguntzaren hitzarmen arauemaileak ez ditu ezartzen entitate horrek justifikatu beharreko gastuak; dena den, onuradunak erabiltzen duen irizpidea arrazoizkoa iruditzen zaigu.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Diruz lagundutako jarduketaren oroitidazki-eredu bat egitea, bai eta diruz lagundutako jarduketaren gastu eta diru-sarreraren justifikazioaren aurkezpenarena ere, errazte aldera dokumentazio hori onuradunei aurkeztea eta, ondoren, berrikustea, kasu guztietan aurkezteko eskatuz.*
- *Hitzarmen arauemaileetan sartzea zer gastu diruz lagundu daitezkeen, baita horiek justifikatzeko modua ere.*
- *Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Onuradunei exijitzea dirulaguntza eman aurretik justifikatu dezatela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.*
- *Dirulaguntzak arautzen dituzten hitzarmenak formalizatu aurretik txosten juridiko bat egitea, udalaren ordenantza orokorrean ezarritakoaren arabera.*

3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertze-ari bultzada emateko.

2021-2022an, Udalak 1,30 milioi jaso zituen, eta 1,05 milioi gastatu ditu hiru proiektutan, honako xehetasun hauekin:

	Aitortutako Betebehar Garbiak, 2021	Aitortutako Betebehar Garbiak, 2022	Guztira 2022/12/31
Kaleen arteko hiri-espazioa egokitzea	658.163	326.958	985.120
Ebro-Tutera korridore berdea	-	29.819	29.819
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	35.909	35.909
Kapital-gastuak, guztira	658.163	392.686	1.050.848

	Aitorturiko Eskubide Garbiak, 2021	Aitorturiko Eskubide Garbiak, 2022	Guztira 2022/12/31
Kaleen arteko hiri-espazioa egokitzea	-	-	-
Ebro-Tutera korridore berdea	-	1.300.000	1.300.000
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak, guztira	-	1.300.000	1.300.000

Funtsen denboratasuna 2026ra bitartekoa da. Urte horretan proiektuek amaituta egon beharko dute. Hiri-espazioa egokitzeari eta modernizazio digitalari buruzko proiektuetan, Udalak gastuak egin ditu, eta dagozkion diru-sarrerak jasotzeko ditu; Ebro-Tutera korridore berdearen kasuan, berriz, egindako gastuak baino diru-sarrera gehiago jaso ditu.

Diru-sarreraren eta gastuen desfase horri dagokionez, egiaztatu dugu Udalak behar bezala ematen duela finantzatze-desbiderapen horien berri, bai aurrekontu-emaiztan bai diruzaintzako gerakinean.

